

0-6 IBILBIDEA

HELBURUAK	HAURREN IBILBIDERAKO HELBURUAK	GURASOEN IBILBIDERAKO HELBURUAK	MUINAK / ESPERIENTZIAK
HELBURU NAGUSIA	Alderdi erlijiosora eta fedearen kristau esperientziara esnatu	Kristau esperientziak zer esan nahi duen antzeman eta nork bere buruari Jainkoaren seme/alaba izateaz jabetuz bizitzeko prest dagoen galdetu¹	
KATEKESIA	<ul style="list-style-type: none"> - Jainkoari Aita deitzen dion hizkuntza erabiltzera ohitu - Jesus, maite gaituen Adiskidetzat hartu 	<ul style="list-style-type: none"> - Jesukristo, Jainko Aitaren aurpegian agertzera ematen zaigula antzeman - Espirituaren eraginez, Jesukristorengan gizakiaren osotasunaren eredia ikusi 	<ul style="list-style-type: none"> - Gure seme-alabaren Bataioa: Zer esan nahi izan du guretzat? Eta orain, zer? - Aita eta ama izatearen esperientzia (II): Jainkoa, samurtasunez maite gaituen Aita dela erakusten digu Jesusek - Jainkoaren antz eta irudira sortuak (autoestimua) - Jainkoaren kristau esperientzia: "Etorri eta ikusi" (Jn 1, 38) - Gizaki eredia (II): Jesusek osotasunean bizitzen irakasten digu - Jainkoaren errukia
HITZA ETA OTOITZA	<ul style="list-style-type: none"> - Ebanjelioko hainbat kontakizun ezagutu: Jaiotza eta Erregeen Gurtza; galdutako ardia; Samariar ona; Zakeo; Bartimeo; deia Apostoluei... - Otoitz eta abesti batzuk erabiltzera ohitu - Familiar otoitz egiteko uneak zehaztu (mahaia bedeinkatu, eguneko une jakin bat, aparteko aukerak...) 	<ul style="list-style-type: none"> - Ebanjelioa irakurtzera ohitu eta Jesusen bizitzari eta predikuari buruzko idazki batzuk ezagutu - Bakarka, familiar eta elkartean otoitz eginez, otoitza Jainkoarekin elkarrizketan jarduteko bide bezala ikusi 	<ul style="list-style-type: none"> - Lagun arteko komunikazioa. Jainkoak hitz egiten digu eta gutariko bakoitzarekin hartu-eman du. Ba ote dakigu entzuten? Jainkoaren presentzia begietsi, hausnartu - Otoitza. Otoitz egin: Jainkoari "zuka" hitz egin. Familiar otoitze egin. Gure Aita.
ELKARTE BIZITZA	<ul style="list-style-type: none"> - Parrokia (PB), Jesusen adiskideekin (jarraitzaileekin) elkartzeko aukera ematen digun leku ezagun bezala aitortu 	<ul style="list-style-type: none"> - Parrokia (PB), Jesusen adiskideekin (jarraitzaileekin) elkartzeko aukera ematen digun leku ezagun bezala aitortu 	<ul style="list-style-type: none"> - Elkartea: Jesusen jarraitzaileen familia
JARDUNBIDEA KARITATEA	<ul style="list-style-type: none"> - Sentibera bihurtu, ahulenei, txikiei arreta eskaini eta zaintzeko - Jainkoak denok Aita bezala maite gaituela aitortu 	<ul style="list-style-type: none"> - Jainkoak azkenen, txikien aldeko hautua Jesusengan agertzen duela antzeman - Azkenen aldeko konpromiso zehatzaren esperientzia eta lekukotasunen bat ezagutu 	<ul style="list-style-type: none"> - Jainkoaren Erreinua: "txikien handitasuna" - Nor da nire lagun hurkoa?
OSPAKIZUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Familia Eukaristian parte hartu - Kristau sinbolo batzuk ezagutu: Gurutzea, jaiotza 	<ul style="list-style-type: none"> - Kristau ospakizuna Jesusekin bizi dugun gure bizitzaren ospakizuntzat hartu - Familia Eukaristian parte hartu 	<ul style="list-style-type: none"> - Gure fedea ospatzeko biltzen gara - Abendu aldia (itxaropena) – Gabon aldia - Garizuma aldia – Pazko aldia
BIHOTZ-BERRITZEA	<ul style="list-style-type: none"> - Alderdi transzendentera ireki - Miresmen eta esker onerako gaitasuna piztu - Jainko Aitarekiko eta Jesusekiko konfiantzazko lotura afektiboa sentitu - Kristau balio batzuk antzeman eta nork bere egin: barkamena, bestearen onarpena, bizikidetasuna 	<ul style="list-style-type: none"> - Jesusen tradiziotik Jainkoaren Misteriora irekitzea ahalbideratzen duen bizitzaren alderdi transzendentiaz jabetu - Nire bizitza zein aukera eta baliotatik eratzen dudan eta nire seme-alabei zein aukera eta balio transmititzen diedan ikusi - Balio ebanjelikoak aitortu - Kristau esperientziak bizitza pertsonal eta sozialean eraginak dituela antzeman - Nork bere bizitarako kristau esperientzia onartzen duen bereizi 	<ul style="list-style-type: none"> - Esperientzia gara - Pertsonaren barruko alderdia: neurea, nire seme-alabarena - Aita eta ama izatearen esperientzia (I) - Autoestimua (Jainkoaren antz eta irudira sortuak) - Esker onez bizi - Fedea: esperientzia - Zer espero dut, zer bilatzen dut nire bizitzan? Zer espero dut, zer amesten dut nire seme-alabarentzat? (bizitarako eredia) - Zorioneko izatera deituak. Zorionerako hezi

¹ Sarbide aurreko prozesua eskaintzean datza, gurasoek seme-alaben bataioak eta beraien bataioak bizitarako zer esan nahi duen azter dezaten eta beraien buruari bataiatu bezala, Jainkoaren seme eta alaba direla jabeturik eta horrek bizitza pertsonalerako, sozialerako... dituen ondorioak onartuz bizitzeko prest dauden galde diezaioten. Fedeari dagokionez, talde hauek osatuko dituzten gurasoen egoerak askotarikoak izan badaitezke ere, ibilbidearen "hartzaile estandarra" hauxe litzateke: bere garaian katekesia, batik bat sakramentu-katekesia, jaso zuen heldua, baina kristau sarbidea osatu ez zuena edo fede bizitzatik aldendu egin dena. Delako heldu hori, bere seme edo alabaren bataioa dela-eta, prest dago bataiatu bezala bizitzeak bizitarako duen esanahian eta inplikazioetan sakontzeko eta bere buruari horrela bizitzeko prest den galdetzeko. Baiezko erantzuna ematen duenak ibilbidean jarraituko du kristau sarbideko aldiarekin, seme-alaben haur aldiko katekesiak irauten duen bitartean. Fede bizia bizi daben eta kristau elkartean txertaturik dauden gurasoei, beraien erreferentzia taldeetan edo elkarrekin amatasun/aitatasunaren irakurketa sinestreduna egiteko aukera emango diegu edo ibilbide hau egiteko proposamena egin, fede esperientziatik aldenduago dauden gurasoei eskaini diezaietkeen lekukotasuna aberasgarria izan daiteke-eta.

			<ul style="list-style-type: none"> - Beldur eta ziurtasunik ezak. Konfiantzara deituak. Konfiantzarako hezi - Aske izatera deituak. Askatasunerako hezi - Burujabe ala mendeko? - Gizaki eredu (I): Edukitzeko bizi ala izateko bizi? - Zein da nire nortasun-eredua? / Nire seme-alabaren nortasunaren eraketan lagundu - Familia-mota: Zein familia gara? - Gaitz eta sufrimenduaren esperientzia (I): Itxaropenera deituak - Gaitz eta sufrimenduaren esperientzia (II): Hurrekin - Barkamena eta adiskidetzea. Familian elkarri barkatzen diogu (Jainkoaren errukia) - Gizartean bizitzera deituak. Bizikidetasunerako hezi - "Eta zuok, nor naizela diozue?"
--	--	--	--